BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3427

AGINDUA, 2012ko uztailaren 4koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, otsailaren 7ko 143/1995 Dekretuan aurreikusitako Batzordeko kideak izendatzen dituen maiatzaren 9ko Agindua aldatzeko dena (143/1995 Dekretua, Sorospenerako Etika Batzordeak sortu eta kreditatzeari buruzkoa).

Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2012ko maiatzaren 9ko Aginduaren bidez Sorospenerako Etika Batzordeak kreditatzeko Batzordeko kideak izendatu ziren.

Andrés Fernández de Corres Díaz Pardo jaunak –Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargo Ofizialeko ordezkari denak– uko egin dio aipatu Batzordeko kide izateari.

Batzorde horretako kideak berritzeko premia dagoenez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargo Ofizialak egin beharreko proposamena egin ondoren,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Andrés Fernández de Corres Díaz Pardo jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargo Ofizialeko ordezkari dena, kargutik kentzea.

Bigarrena.– Juan Larumbe Ochoa jauna Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargo Ofizialeko ordezkari izendatzea.

Hirugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 4a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.